

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialetako Departamentuak 91 ekarpen gehitu dizkio Zerbitzu Zorroa aldatzeko testuaren zirriborroari, aurkeztutakoen % 44

Departamentuak 239 iradokizun aurkeztu dituzten herritarren nahiz erakundeen inplikazioa eskertu du

Osteguna, 2018.eko irailak 6

Eskubide Sozialetako Departamentuak, jasotako ekarpenen ia erdiak gehitu dizkio [Gizarte-Zerbitzu Orokorren Zorroa](#) aldatzeko testuaren zirriborroari. Partaidetza prozesua bukatu, hasieran proposatutako testuan, partikularrek nahiz sektoreko erakundeek egindako 91 proposamen bildu dira, aztertutako ekarpenen % 44.

Nafarroako Gobernua “poz-pozik” azaldu da, Gizarte-Zerbitzu Orokorren Zorroa arautzen duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua aldatzeko zirriborroak jasotako ekarpen eta proposamenen kopuru handiaren aurrean. Horiek guztiak Nafarroako Gobernuaren gardentasunaren atarian bildu dira maiatzaren 21etik ekainaren 11ra bitartean.

Ostegun honetatik aurrera, [gardentasunaren atarian](#) kontsulta daiteke ekarpen bakoitzari erantzunez landutako txostena, [behin-betiko zirriborroarekin](#) batera.

Iradokizunak aurkezteko epearen barruan, 239 ekarpen bildu dira guztira, horietako batzuk zenbait erakunde errepikatuta, eta ondorioz, bukaeran, 205 proposamen aintzakotzat hartu dira.

Jasotako ekarpenetatik % 44 onartu dira, % 36 proposatuta zeuden bezala (74) eta % 8 zatika (17). Proposamenen % 46 onartu gabe gelditu dira, eta % 7 bidezkoetat baina zorrotik kanpokoetat jo dira. % 1ean akatsak edo bestelako egoerak zeuden.

Ekarpenak aurkeztu dizkiote hasierako testuari Leiza, Antzin-Ameskoa, Burlata eta Iruñerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalak, Acodifna eta Cermin elkarteak, Nafarroan aniztasun funtzionala izan eta laguntza pertsonaleko zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak eta honako erakunde hauetako teknikariek: Oficina de Vida Independiente, Plena Inclusión, Anasaps, Gizarte-Bazterketaren aurka Borrokatzeko Sarea, Gurutze Gorria, Antox, Marelur gizarte zibila, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko ohiak, Lehen Mailako Arreta, SEI kultura-arteko gizarte eta hezkuntza zerbitzua, eta Magale Elkarteak.

Jendaurreko erakusketarekin batera, bilerak eta aurkezpenak egin dira Gizarte Zerbitzuen arloko hainbat eragilerekin: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa. Era berean,

proposamena zorroan araututako arreta-esparru desberdinetan lan egiten duten elkarte eta erakunde gehienei aurkeztu zaie: CERMÍN, Gizarte-Bazterketaren aurka Borrokatzeko Sarea, LARES, Adinekoen Klubak eta Elkarreak, haurren babesaren arloko erakundeak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan eta kontseilu sektorialak (desgaitasuna, adinekoak eta adingabeak).

Iradokizunak jarduera-eremuen arabera sailkatuz gero, % 46 Mendekotasuna, Adinekoak, Desgaitasuna eta Osasun Mentala delakoari atxikitakoak dira; % 22 Adingabeen Babeseoak; % 20 Gizarte Bazterketari buruzkoak; % 8 Genero-Indarkeriari lotutakoak eta % 3 Lehen Mailako Arretakoak.

Ontzat hartu diren ekarpen asko hizkuntzari, prestazio eta zerbitzuen definizioari eta helburuko pertsonen definizioari lotuta zeuden. Aintzakotzat hartu dira eredu teorikoetara eta jarduera-esparru desberdinetan dauden egungo adostasunetara hobeto egokitzen baitira.

Era berean, zenbait prestazio eta zerbitzuren baldintza eta intentsitateei eragiten dieten ekarpenak gehitu dira. Horrela, osasun mentalaren arloko erabilera askeko dirulaguntzaren kasuan, adinaren muga eta zerbitzuan hiru urte eginak izateko betebeharrak baztertu dira; laguntza-produktuei buruzko orientazio zerbitzuan, egoitza Nafarroan izatea da mantendu den baldintza bakarra. Gizarte-bazterketaren arloan, zenbait zerbitzu esleitzeko epeak murriztu dira (Gizareratzen eta Laneratzen Laguntzeko Zerbitzua, kasu), eta gauza bera egin da genero-indarkeriaren biktimentzako ezohiko laguntzei buruzko deialdi eta esleipenetan. Adingabeen arloan, harrerako familiek jasotako kopuru osagarrien zenbatekoak hobetu dira, baita gizarte-larrialdi egoeran dauden familientzako laguntzak ere.